

XEDAPENA, 2023KO EKAINAREN 8KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA. HONEN BIDEZ, IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERREDA ONARTZEN DA, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREN ARABERA, OSATEK-EN DESTINOA DUTEN TEKNIKARI MANIPULATZAILEAREN KATEGORIAKO LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEK-en destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileak 2023ko apirilaren 27an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEK-en destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko merezimendu-lehiaketa bidez hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

Merezimenduak aurkezteko epea amaituta, zuzendari kudeatzaileak izangaien behin-behineko zerrenda onartzen du, puntuazioaren arabera, baloratutako atal bakoitzean lortutako puntuazioekin eta prozesuko hurrenkera-zenbakiarekin.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Zerrenda hori xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEK-en webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: erreklamazioak aurkezteko 5 egun balioduneko epea ematea, Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileari bidalitako idazkiaren bidez tm6488osatek@campo-ochandiano.com helbide elektronikora bidalita, edo posta arruntez OSATEK SARI (Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011 Bilbao) bidalita.